

HITZAK HOTS



Antton Valverde - Anjel Lertxundi

LIBURUA + DVD

Littera & musika, 12

978-84-9172-185-7

2020. urtea - 56 or. - 13,5x13 cm

15,00 €

«Antton Valverdek bost poeta, bost emakume musikatu ditu bere kontzertu berrirako.

Bost poetika, bost ikuskera eta zortzi poema, eta haiekin sortutako zortzi kantu. Bost poeta, zortzi poema, musikari bat, zortzi kantu. Euskal konpas ezagunean bezala, zortziko bat osatzen du kontzertuak: 5/8.

Kontzertuan zehar, zortzi poemaren maila ezagutu ahala, galdera baten oihartzuna –hitzak hots– ibiliko zaigu airean: entzundakoak entzunda, zergatik musikatu da emakumezkoen hain testu eta poema gutxi euskal kantagintzan?

Galdera horixe egin genion Anttonek eta nik elkarri orain pare bat urte: zergatik musikatu da emakumezkoen hain testu gutxi euskal kantagintzan? Hortik abiatu, lanean hasi ginen, galderari erantzuteko modu aktibo batean. Poeta emakume batzuk aipatu nizkion, liburu batzuk ere bai aholkatu eta liburuetakoko poema batzuk seinatu. Hortik abiatu, Anttonek bere selekzioa egin zuen poema gustukoekin, bere musikara egokitzen zirenekin. Ordutik, gaur entzungo ditugun zortzi poemek bi musika dituzte: poeta bakoitzak eman ziena bere garaian eta Antton Valverdek emandakoa.»

ANJEL LERTXUNDI

